



ETXEAN EGIN BEHARREKO ZAINKETA OROKORRAK

- Edan 1,5 eta 2 litro likido bitartean (=8 baso) (zukuak, saldak, ura, infusioak...).
- Bota katetik 2 aldiz edo lixiba zorrotada bat komuna erabili ondoren.
- Larruazala zaintzea:
 - Hidratazioa eta eguzki-babesa.
 - Buru-azala hidratatzea.
- Ahoko mukosa zaintzea:
 - Ahoko higieena, eskuila leunarekin.
 - Alkoholik gabeko kolutorioak.
 - Kamamila eta/edo bikarbonato irakuzketak.
 - Aftak agertzen badira:
 - ★ Irakuzketak bikarbonatoarekin.
 - ★ Elikagai bigun epel-hotzak
 - Mastekatzeko edo irensteko zailtasunak izanez gero:
 - ★ Kontsultatu.
- Hesteetako patroiaaren alterazioak:
 - Dieta bidezko maneia.
 - Alterazio handia bada:
 - ★ Kontsultatu.
- Mielosupresioko zainketak:
 - ↑38 °C-ko tenperaturan izanez gero:
 - ★ Joan Larrialdietara botikarik hartu gabe.
- Nolabaiteko jardura mantentzea:
 - Paseatzea, bizikleta, lanak egitea...
- Ebidentzia zientifikorik gabeko zainketak:
 - Aftak/auriak prebenitzea:
 - ★ Irakuzketak, sagar-ozpina urarekin diluituta, 1:3.
 - Aftak agertzen badira:
 - ★ Irakuzketak Coca-Colarekin.
 - Ahoa lehortzea:
 - ★ Irakuzketak kamamila infusioarekin + oliba-olioa + limoi-erdia.
 - Goragale-sentsazio etengabea, ondoez gastrikoa, bihotzerrea:
 - ★ Jengibre-infusioa.



HEMATOLOGIAKO ALBO-ONDORIOAK.

- Oro har, medikuari edo erizainari jakinarazi behar zaio osasun-egoeran aldaketarik egon den edo ez kontsultetan, balorazio egokia egiteko.
- Hona hemen jasotzen ari zaren tratamenduak eragin ditzakeen ondorio nagusiak. Kontuan izan dokumentu honetan adierazitakoez gain beste ondorio batzuk ere izan daitezkeela.

Infekzio-prozesuak:

- Oro har, tratamendu kimioterapikoek neutropenia eragin dezakete, eta, beraz, infekzio-prozesuen arriskua areagotu. Tratamendu kimioterapikoan sukarra baduzu, larrialdietara joan behar duzu balorazioa egitera. Arrisku berezikoak dira neutropenia bidezko profilaxi antibiotikoa duten pazienteak (normalean, lebofloxazinoa), sukar-sindromea dutenak.
- Egoera orokorra hondatzen bada, zorabioa, logurarako joera, arnasa hartzeko zailtasuna, diuresia eta hipotentsioa murrizten badira, larrialdietara jo behar da, balorazio egokia egiteko.

Diabetikoak:

- Diabetikoa bazara, kontrol zorrotzak egin behar dituzu tratamendu kimioterapikoa eman eta hurrengo egunetan, batez ere kortikoideak badituzu: dexametasona (**Fortecortin ®**), prednisona, metilprednisolona.

INTERES BEREZIKO ALBO-ONDORIOAK, JASOTAKO TRATAMENDUAREN ARABERA:

- ***Brentuximab:*** neuropatia periferikoaren arriskua: sentikortasunaren sentrazio asaldaturia, normalean, eskuetako eta oinetako hatzetan, inurridura, ziztada-sentsazio eta, kasu larrietan, mina. Eskuetan edo oinetan sentikortasunaren aldaketarik nabaritzen baduzu, ohartarazi zure hematologo edo erizainarekin kontsultatzean.